

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Foru intereseko inbertsio bezala deklaratu dute Tuteran lau eguzki-instalazio fotovoltaiko jartzea

Enhola Taldeak sustatuta, 320-350 bat lanpostu sortzea aurreikusten da

Asteazkena, 2018.eko azaroak 28

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onartutako akordioaren bitartez, foru intereseko inbertsio moduan deklaratu dute Tuteran lau eguzki-instalazio fotovoltaiko abian jartzeko eta ustiatzeko enpresa-proiektua, 176 MW-ko potentziarekin, Enhola Taldeak sustatuta.

Obra egiteko, instalatzeko eta abian jartzeko fasean zehar, 320 eta 350 lanpostu artean sortzea aurreikusten da edota 20-25 pertsona kontratatzea ondorengo ustiapenean. Enplegu horiek guztiak proiektua kokatuko den lekuan sortuko dira.

Proiektuaren inbertsioa gutxi gorabehera 99.650.000 eurokoa da, eta Nafarroako Espezializazio Adimentsuko Estrategiako "Energia berriztagarriak eta baliabideak" izeneko eremu estrategikoan kokatzen da. Gainera, Plan Energetikoko energia berriztagarriak ekoizteko helburuak lortzen laguntzen du, eta lanpostu-kopuru handia sortuko du eraikuntzan zein ustiapenean, enplegua sortzeko premia bereziak dituen tokian.

Gogoratu behar da Exekutiboak foru intereseko inbertsio bezala deklaratu ditzakeela Nafarroako garapen ekonomiko, sozial edo lurralderako garrantzi berezia duten proiektuak. Izendapen hori lortzen duten ekimenek lehentasunezko eta premiazko bultzada izaten dute ondoren, Nafarroako administrazio publiko guztiekin egin beharreko izapide ezberdinetan. Era horretan, esate baterako, erdira murrizten dira jarduera ezartzeko, hirigintza-plangintza egiteko edo gauzatzeko, irekitzeko edo funtzionamendurako lizentziak izapidetzeko aurreikusitako epe arruntak.